

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Berezibar Garro

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1934-2019)*

Aurkibidea



Biografia



Garagartza auzoko Lazaruena baserrian jaio zen, sei anai-arrebatatik zaharrena. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, auzo bereko Garrorena baserrikoa. Auzoko eskolan ikasi zuen zazpi urtetik hamalaura arte. Eskolak bukatuta, etxean geratu zen, eta hamasei urterekin baso lanetan ekin zion. Lau urtez jardun zuen horretan, eta Jaizkibelen 1952. urteko suteak kiskaldutako mendietan ere jardun zuen lanean. Soldaduska Marokoko Alkazarkibir-en egin zuen. Bertako ospitalean izeba moja bat zuen, eta Juantxok laguntzaile lanetan jardun zuen ospitalean. Soldaduska bukatu ostean, baserria eramateaz gain, Zerrajeran jardun zuen lanean jubilatuta arte. Zerrajerako Etruk ermandadeari buruzko azalpenak ematen ditu. Bere auzoaren “zazpi kaleen” izenak ematen ditu, eta baita auzotarren gainbeherari buruzko azalpenak ere.

Zintak

ARR-144

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-01
- **Iraupena:** 43 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Garagartzako eskola eta dotrina

- **Erref:** ARR-144/002
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:02:29. **Bukatu:** 00:04:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Zazpi urte ingururekin hasi zen Garagartzako eskolan. Eskolan erdaraz egin behar izaten zuten, bestela "egurra" jasotzen zuten. Baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen, eta ez zen egunero joaten eskolara. Don Joakin apaizarekin eta Don Ziriako maisuarekin ikasten zuten. Dotrina ikastera elizara joaten ziren.

2. Ume garaiko jolasak

- **Erref:** ARR-144/003
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:04:07. **Bukatu:** 00:06:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Eskola garaiko jolasak. Ipurdi topeka nola jolasten zuten kontatzen du. Kaniketan, txori-habi bila, txirikiletan... ere jolasten zuten.

3. Garagartzako eskola eta Arrasateko gau-eskola

- **Erref:** ARR-144/004
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:06:09. **Bukatu:** 00:08:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen, eta, horregatik, ez zen beti joaten eskola. Juan gustura egoten zen eskolara joan gabe. Eskolan, ekainean egiten zituzten azterketak. Luma nola oratu behar zen, lau erregelak, irakurtzen, ortografia... ikasten zuten. Eskolan ematen zizkien liburuak. Gero, bi-hiru hilabete egin zituen Arrasateko gau-eskolan.

4. Zapo kale

- **Erref:** ARR-144/009
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:10:12. **Bukatu:** 00:11:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Juan Zapo kaleko Lazaruena baserrian bizi da. Kalearen izenari buruzko azalpenak ematen ditu. Kale horretako errekan zapo eta arrain ugari izaten omen zen lehen.

5. Garagartzako zazpi kaleak

- **Erref:** ARR-144/011
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:12:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Garagartzako zazpi kaleen izenak aipatzen ditu: Zapo kale, "Añue" kale, Ezti kale, "Euzki" kale, Matxin kale, Elizondo kale eta Zabalbide. Bizilagunen arteko harremanei buruz hitz egiten du.

6. Gari-lanak

- **Erref:** ARR-144/013
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:13:31. **Bukatu:** 00:14:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Zemendian (azaroan), lurra bueltatu eta hazia botatzen zen. Martxo inguruan, trailua pasatzen zuten lur horretan. Ekaina-uztaila aldera, garia ebaki, lotu eta metatan biltzen zen. Larraínean garia nola jotzen zuten azaltzen du.</p>

7. Garia entregatu behar

- **Erref:** ARR-144/016
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:15:26. **Bukatu:** 00:16:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Garia entregatu egin behar izaten zuten (udalera, abadeari...): 25 kiloko hiru zaku. Etxerako ez zitzaíen gari asko geratzen. Irina Markuletetik eta inguruko errota batetik lortzen zuten.</p>

8. Artotza

- **Erref:** ARR-144/017
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:16:28. **Bukatu:** 00:17:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Etxeko labean erretzen zuten artoa. Arto gehiago jan ohi zuten garia baino. Arto-irinarekin morokila, taloa, tremeza eta artotza egin ohi zituzten. Artotza: arto-irinarekin ore bat egin, txapan erre eta bi aza-orritan bilduta jan ohi zuten.

9. 16 urterekin, basolanean hasi

- **Erref:** ARR-144/020
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:21:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>16 urterekin hasi zen basolanean Juan. Normalean, inguruko basoetan aritzen zen lanean. 50. hamarkada hasieran, Jaizkibel aldeko baso bat erre zen, eta hango basoetan lanean aritu zen hainbat hilabetez. Lau urte egin zituen basolanean.</p>

10. Soldadutza, Marokon

- **Erref:** ARR-144/021
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:21:07. **Bukatu:** 00:23:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Alcazarquivirren (Ksar el-Kebir), Marokon, egin zuen soldadutza. Juanen amaren ahizpa bat moja zegoen han, eta, haren eraginari esker, "bizimodu ona bota" zuela eta soldadutza guztia kale-jantzian egin zuela kontatzen du. Ospitalean asistente lanak egiten zituen goiz partean, eta bertan erretiratzen zen gero. 20 hilabete egin zituen Afrikan.</p>

11. Zerrajera eta Etruk ermandadea

- **Erref:** ARR-144/026
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:26:04. **Bukatu:** 00:29:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Soldadutzatik bueltan, Zerrajeran lanean hasi eta bertan aritu zen jubilatzen arte. Zerrajeran zer lan egin zituen azaltzen du. Zerrajerako Etruk ermandadeari buruzko azalpenak ematen ditu: langileen artean diru-bilketak egiten ziren beharra zutenen artean banatzeko... Zerrajerako hainbat ugazaben abizenak aipatzen ditu.

12. Lezetxikiko artzaina eta lamia

- **Erref:** ARR-144/034
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:37:44. **Bukatu:** 00:39:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Korrioneko artzaina Lezetxiki inguruan bizi zen lamia batekin maitemindu zen. Artzaina nahigabearekin hil zela kontatzen du.

13. Feria eta esnea

- **Erref:** ARR-144/038
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:40:49. **Bukatu:** 00:41:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Hamabostean behin egiten zen feria Arrasaten. Juanen aita joan ohi zen tratua egitera. Esnea eramaten zien Santa Agedako moja eta fraideei.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com